



2018eko MARTXOAREN 27 KO BILKURAKO AKTA

Bilkura: Ohikoa

Eguna: 2018/03/27

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea
Luis Lopez Garcia Uceda. Zinegotzia
Ane Garmendia Gorostidi. Zinegotzia
Jokin Garmendia Etxeberria. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1.-2018eko otsailak 27ko bilkurako akta onartzea hala balegokio .
- 2.-Alkateak eman dituen ebazpenen berri ematea.
 - I. 2/2018 hainbat ordainketa.
 - II. 3/2018 Irabiko obra.
 - III. 4/2018 hainbat ordainketa
 - IV. 5/2018 OHZ hobariak energia
 - V. 6/2018 OHZ hobariak familia ugaria
 - VI. 7/2018 hobariak ibilgailu historikoak
 - VII. 8/2018 Salbuespenak ibilgailu zergak
 - VIII. 9/2018 hainbat ordainketa
 - IX. 10/2018 Pilates ikastaroa
 - X. 11/2018 Yoga ikastaroa
 - XI. 12/2018 trakzio mekanikozko ibi
 - XII. Ilgailu zergen errolda
 - XIII. 13/2018 zabor errolda
- 3.-2017ko aurrekontuaren likidazioa eta kontu orokorra onartzea
- 4.-Asuncion Klinikako (Inviza) langile batzordeak aurkeztutako mozio proposamena onartzea.
- 5.-Galderak eta eskaerak

1.-2018-02-27 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2018-02-27ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den . Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta.



2.-ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN BERRIEMATEA.

I. 2/2018 HAINBAT ORDAINKETA.

Ikusirik, Baliarraingo udalean hainbat faktura jaso direla.

Ikusirik faktura hauek ordaintzeko kreditua onartua dagoela

Ikusirik, faktura hauekin egin den zerrendaren datuak honakoak direla:

Data: 2018-01-25

Artxibo zenbakia: 6305

Zenbatekoa: 1087,86€

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D.

Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

Bat.- Alkateak, ordainketa zerrenda honetako ordainketa egitea onartu du.

II. 3/2018 IRABIKO OBRA.

Ikusirik, Irabi Elkarte S.Ck bere nekazal instalazioetarako doan bidea egoera larrian dagoela eta neurriak hartzen hasi behar duela .

Ikusirik , bere nekazal instalazioen seguritatea bermatzeko eta bide batez ibilbidea eta ziurtatzeko , gaur egun dituen urak biltzea da nagusiki egin behar den lana, hasera batetan .

Ikusirik, aurkeztu duen aurrekontuan , egin beharreko lanak nekazal instalazio eta bidearen inguruan egin beharreko lanak direla eta guztira bez kanpo 28.150 eurotako aurrekontua duela .

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D.

Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

Bat.- Irabi elkarte S.C.ri eskatutako obrak burutzeko baimena onartzea .

Bi.-Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

III. 4/2018 HAINBAT ORDAINKETA

Ikusirik, Baliarraingo udalean hainbat faktura jaso direla.

Ikusirik faktura hauek ordaintzeko kreditua onartua dagoela

Ikusirik, faktura hauekin egin den zerrendaren datuak honakoak direla:

Data: 2018-02-06

Artxibo zenbakia: 6517

Zenbatekoa: 2.006,66€

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D.

Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

Bat.- Alkateak, ordainketa zerrenda honetako ordainketa egitea onartu du.

IV. 5/2018 OHZ HOBARIAK ENERGIA



Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

Bat.- Udalak erabaki bezala , eskatzaile hauen Ondasun Higiezinako zergaren kuotan , 2018 ekitaldian %50ek hobaria aplikatzea :

| N.A.N IZENA ETA ABIZENA | ZK FINKOA | ERRE . KA. |
|---------------------------------------|-----------|------------|
| 72461833B Garbiñe Olaberria Azaldeg | 6106577V | 7169031 |
| 72459303B Arkaitz Arteaga Olaberria | 6134049Q | 7169019 |
| 15153761G Miguel Etxeberria Irastorza | 5188310K | 7069010 |
| 44163288E Imanol Soroa Crespo | 6134052H | 7169013 |

Bi.-Hurrengo Bilkuran erabakiaren berri ematea .
Hiru : Eskatzaileei ere erabakiaren berri ematea .

V. 6/2018 OHZ HOBARIAK FAMILIA UGARIA

EBAZTEN DUT:

Bat.- Udalak erabaki bezala , eskatzaile hauen Ondasun Higiezinako zergaren kuotan , 2018 ekitaldian %50eko hobaria aplikatzea :

| N.A.N IZENA ETA ABIZENA | ZK FINKOA | ERRE . KA. |
|--------------------------------|-----------|------------|
| 35777760H Andoni Olano Manzano | 6107822B | 716930 |

Bi.-Hurrengo Bilkuran erabakiaren berri ematea .

VI. 7/2018 HOBARIAK IBILGAILU HISTORIKOAK

EBAZTEN DUT:

Bat.- Udalak erabaki bezala , eskatzaile hauen Ibilgilu zergaren kuotan , 2018 ekitaldian %50eko hobaria aplikatzea :

| N.A.N IZENA ETA ABIZENA | IBILG. MATRIKUL. |
|---|------------------|
| 72453875-A Maria Nieves Jauregi Garmendia | Z-3051-A |

Bi.-Hurrengo Bilkuran erabakiaren berri ematea .

VII. 8/2018 SALBUESPENAK IBILGAILU ZERGA

Baliarraingo Udalak, 2018 ekitaldirako TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN ZERGAN indarrean dagoen 3/2010 arau foralaren erabakia ontzat eman eta aplikatzea, ondorengo herritarrei onartzen zaie, baldintza hauek betetzen dituztelako:

1. % 33tik %65 bitarteko ezintasunaren agiria aurkeztu izateagatik eta kasu hauetan gainera 1971/1999 E.D aren 3 eranskinean esaten dena betetzen delako. Edo,
2. %65etik goragoko ezintasuna dutelako.



Eta bi kasuetan ibilgailuak 14 zaldi fiskal edo gutxiago dituelako .

| Izen Abizenak | N.A.N. | Matrikula | Modalit. | Salbuesp. |
|-------------------------------|-----------|-----------|----------|-----------|
| Jose Ramon Zubeldia Garmendia | 15881180W | 8429-CJD | 1 | Bai |

VIII. 9/2018 HAINBAT ORDAINKETA

Ikusirik, Baliarraingo udalean hainbat faktura jaso direla.

Ikusirik faktura hauek ordaintzeko kreditua onartua dagoela

Ikusirik, faktura hauekin egin den zerrendaren datuak honakoak direla:

Data: 2018-03-09

Artxibo zenbakia: 6889

Zenbatekoa: 2.887,30 €

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arazteak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D.

Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

Bat.- Alkateak, ordainketa zerrenda honetako ordainketa egitea onartu du.

IX. 10/2018 PILATES IKASTAROA

LEHENA: 2017/2018 Ikasturteko lehenengo hiru hileko Pilates ikastaroa ikasle bakoitzari dagokion portzentaian finantzatzea. Hau da,

| | | |
|-------------------------------|-----------------------------|---------|
| Garbiñe Olaberria Azaldegia . | Kostuaren %20 ekoa, hau da, | 10,00 € |
| Janire Zubeldia Olano | Kostuaren %20 ekoa, hau da, | 10,00 € |
| Maxux Olano Etxeberria . | Kostuaren %70ekoa, hau da | 35,00 € |
| Elena Huarte | Kostuaren %70ekoa, hau da | 35,00 € |
| Agurtzane Garmendia | Kostuaren %20 ekoa, hau da, | 10,00 € |
| Ana Olaberria .Azaldegia | Kostuaren %20 ekoa, hau da | 10,00 € |
| Garazi Urkiola | Kostuaren %70 ekoa, hau da | 35,00 € |
| Xabier Urtasun | Kostuaren %20 ekoa, hau da | 10,00 € |

Bakoitzari dagokion diru laguntza onartzea eta ematea ikastaroa finantziatzeko.

BIGARRENA: Gastua 1.0000. 481.334.00.02 kontu sailaren kargura egingo da.

X. 11/2018 YOGA IKASTAROA

LEHENA: 2017/2018 Ikasturteko lehenengo hiru hileko Yoga ikastaroa ikasle bakoitzari dagokion portzentaian finantzatzea. Hau da,

| | | |
|---------------------|-----------------------------|------|
| Pili Loinaz | Kostuaren %20 ekoa, hau da, | 22 € |
| Laura Arredondo | Kostuaren %20 ekoa, hau da, | 22 € |
| Leire Zubeldia.. | Kostuaren %20ekoa, hau da | 22 € |
| Helena Huarte | Kostuaren %70ekoa, hau da | 77 € |
| Agurtzane Garmendia | Kostuaren %20 ekoa, hau da, | 22 € |
| Ana Olaberria | Kostuaren %20 ekoa, hau da | 22 € |



| | | |
|-----------------|----------------------------|------|
| Jaione Olano | Kostuaren %20 ekoa, hau da | 18 € |
| Juantxo Iztueta | Kostuaren %20 ekoa, hau da | 18 € |
| Josu Ozaita | Kostuaren %20 ekoa, hau da | 22 € |

Bakoitzari dagokion diru laguntza onartzea eta ematea ikastaroa finantziatzeko.

BIGARRENA: Gastua 1.0000. 481.334.00.02 kontu sailaren kargura egingo da.

XI. 12/2018 TRAKZIO MEKANIKOZKO IBLGAILU ZERGEN ERROLDA

Ikusirik 2018 urteari dagokion Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren errolda aurreikusten dela.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

BAT: 2018 urteari dagokion Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren errolda onestea, 9.564,35 eurotako kopuruan.

BI: Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren erreziboak ordaintzeko borondatezko epea 2018ko apirilaren 18tik ekainaren 29 bitartekoa izatea onestea.

XII. 13/2018 ZABOR ERROLDA

Ikusirik 2018 urteari dagokion Zaborren gaineko zergaren errolda aurreikusten dela.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

BAT: 2018 urteari dagokion zaborren gaineko zergaren errolda onestea, 5238,06 eurotako kopuruan.

BI: Zaborren gaineko zergaren erreziboak ordaintzeko borondatezko epea 2018ko martxoaren 01etik 2019ko urtarrilaren 30era bitartekoa izatea onestea.

Alkatearen ebazpenen berri eman eta guztiak berronetsiak geratu dira .



3.-2017KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA KONTU OROKORRA ONARTZEA

Alkateak horrela eskatuta , 2017eko likidazioaren txostenak eta kontu Orokorraren txostenak agertu dira eta deialdiarekin batera kopia bana ere helarazi zaie zinegotziei .

Baliarraingo Kontuhartzaileak,2017 (e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz ondorengo txostena egin du, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan jasotakoa betez:

TXOSTENA

Udalbatzarrak 2016.(e)ko abenduaren 20e)an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Udal honen 2017(e)ko aurrekontua. Aurrekontu horrek jasotako ordainketa kredituen zenbatekoa, eta ekitaldian zehar onartutako aldaketena, ondoko taulan xehetzen da:

| | |
|-------------------------------------|------------|
| Hasierako aurrekontua:..... | 270.176,00 |
| Kreditu gaikuntzak:..... | 0,00 |
| Kreditu | 0,00 |
| Baliogabetzearen ziozko bajak:..... | 0,00 |
| Kreditu | 135.124,74 |
| Behin betiko | 405.300,74 |
| aurrekontua:..... | |

Aurrekontu horren exekuzioan ondorengo hauek azpimarratu behar dira:

GEHIKUNTZAREN ARRAZOIA : AZPISALETXEKO BIDEA ETA SANEAMENDU ETA UR HORNIDURA PROIEKTUAREN AURREIKUSPENA .

1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:



| KAPITULUA | 2017 EKITALDIA | | | 2016 EKITALDIA | | |
|--|--------------------------|--------------------|--------------|--------------------------|--------------------|--------------|
| | BEHIN BETIKO AURREKONTUA | OBLIGAZIO ONARTUAK | % | BEHIN-BETIKO AURREKONTUA | OBLIGAZIO ONARTUAK | % |
| 1 - Pertsonal gastuak | 81.707,77 | 81.707,77 | 100,00 | 84.240,00 | 68.734,37 | 81,59 |
| 2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan | 51.992,00 | 36.508,58 | 70,22 | 54.933,39 | 46.065,13 | 83,86 |
| 3 - Finantza gastuak | 200,00 | 0,13 | 0,06 | 200,00 | 4,87 | 2,44 |
| 4 - Transferentzia arruntak | 42.714,00 | 34.007,96 | 79,62 | 38.920,50 | 32.319,67 | 83,04 |
| 5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 6 - Inbertsio errealak | 221.383,85 | 150.455,63 | 67,96 | 103.288,40 | 89.393,29 | 86,55 |
| 7 - Kapital transferentziak | 2.600,00 | 1.395,33 | 53,67 | 2.600,00 | 1.354,98 | 52,11 |
| 8 - Finantza aktiboak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 9 - Finantza pasiboak | 4.703,12 | 4.702,99 | 100,00 | 18.810,07 | 18.810,07 | 100,00 |
| GUZTIRA | 405.300,74 | 308.778,39 | 76,19 | 302.992,36 | 256.682,38 | 84,72 |

Bereziki, gauzatutakoaren portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa dela-eta, ondoko partidak nabarmendu behar dira:

UR HORNIDURA ETA SANEAMENDUA EZ DA EXEKUTATU

6. kapituluak (Inbertsio errealak) honako gauzatze portzentajea agertzen du, faseen arabera, aurtengo ekitaldian nahiz aurrekoan:

| GAUZATZE FASEA | 2017 EKITALDIA | | 2016 EKITALDIA | |
|-----------------------------------|--------------------|--------------------------|--------------------|--------------------------|
| | ZENBATEKOA EUROTAN | KREDITUEN GUZTIZKOAREN % | ZENBATEKOA EUROTAN | KREDITUEN GUZTIZKOAREN % |
| Obligaciones reconocidas (Fase O) | 150.455,63 | 67,96 | 89.393,29 | 86,55 |
| Gastos dispuestos (Fase D) | 150.455,63 | 67,96 | 89.393,29 | 86,55 |
| Gastos autorizados (Fase A) | 150.455,63 | 67,96 | 89.393,29 | 86,55 |
| Total créditos | 221.383,85 | 100,00 | 103.288,40 | 100,00 |

Beraz, oro har esan daiteke gauzatze portzentajea **HANDIA** izan dela.

2.- NORAINO BURUTU DIREN OBLIGAZIO ONARTUAK

Aurrekontuko obligazio onartuengatik ordainketek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertzen dituzte kapituluka, bai aurtengo ekitaldian bai aurrekoan ere:



| KAPITULUA | 2017 EKITALDIA | | | 2016 EKITALDIA | | |
|--|--------------------|---------------------|--------------|--------------------|---------------------|--------------|
| | OBLIGAZIO ONARTUAK | ORDAINKETA LIKIDOAK | % | OBLIGAZIO ONARTUAK | ORDAINKETA LIKIDOAK | % |
| 1 - Pertsonal gastuak | 81.707,77 | 81.707,77 | 100,00 | 68.734,37 | 68.734,37 | 100,00 |
| 2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan | 36.508,58 | 36.328,16 | 99,51 | 46.065,13 | 44.927,73 | 97,53 |
| 3 - Finantza gastuak | 0,13 | 0,13 | 100,00 | 4,87 | 4,87 | 100,00 |
| 4 - Transferentzia arruntak | 34.007,96 | 34.007,96 | 100,00 | 32.319,67 | 32.319,67 | 100,00 |
| 5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 6 - Inbertsio errealak | 150.455,63 | 132.476,49 | 88,05 | 89.393,29 | 35.716,06 | 39,95 |
| 7 - Kapital transferentziak | 1.395,33 | 1.395,33 | 100,00 | 1.354,98 | 1.354,98 | 100,00 |
| 8 - Finantza aktiboak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 9 - Finantza pasiboak | 4.702,99 | 4.702,99 | 100,00 | 18.810,07 | 18.810,07 | 100,00 |
| GUZTIRA | 308.778,39 | 290.618,83 | 94,12 | 256.682,38 | 201.867,75 | 78,64 |

Bereziki, beren garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondorengo partidak nabarmentzekoak dira:

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea OSO HANDIA izan dela.

3.- NORAINO GAUZATU DEN SARREREN AURREKONTUA

Ondoko taulan jaso dira sarrerren aurreikuspenetan izan diren desbiderapenak, hau da, behin betiko aurreikuspenen eta benetan likidatutako eskubideen arteko aldea, kapituluka, azken bi ekitaldietan, bai balio absolutuetan bai portzentajetan:

| KAPITULUA | 2017 EKITALDIA | | | 2016 EKITALDIA | | |
|--|-----------------------------|-------------------|--------------|-----------------------------|-------------------|--------------|
| | BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK | ESKUBIDE ONARTUAK | % | BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK | ESKUBIDE ONARTUAK | % |
| 1 - Zuzeneko zergak | 20.300,00 | 22.841,21 | 112,52 | 18.300,00 | 22.164,41 | 121,12 |
| 2 - Zeharkako zergak | 2.000,00 | 151,29 | 7,56 | 2.000,00 | 132,16 | 6,61 |
| 3 - Tasak eta bestelako zergak | 14.210,00 | 12.127,34 | 85,34 | 22.210,00 | 15.433,55 | 69,49 |
| 4 - Transferentzia arruntak | 188.166,00 | 195.658,89 | 103,98 | 187.180,86 | 182.487,80 | 97,49 |
| 5 - Ondare sarrerak | 8.100,00 | 10.678,05 | 131,83 | 9.700,00 | 14.564,90 | 150,15 |
| 6 - Inbertsio errealak besterenganazetik eta hirigintzako jardueretatik ondori | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 7 - Kapital transferentziak | 37.400,00 | 80.007,51 | 213,92 | 63.601,50 | 65.560,00 | 103,08 |
| 8 - Finantza aktiboak | 135.124,74 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 9 - Finantza pasiboak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| GUZTIRA | 405.300,74 | 321.464,29 | 79,32 | 302.992,36 | 300.342,82 | 99,13 |

Bereziki, gauzatze portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondoko kontzeptuak nabarmentzekoak dira:

Beraz, oro har esan daiteke exekuzioaren portzentajea HANDIA izan dela.



4.- NORAINO BURUTU DIREN ESKUBIDE ONARTUAK

Aurrekontuko eskubide onartuengatik egindako kobrantzek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertu dituzte kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz iazkoan:

| KAPITULUA | 2017 EKITALDIA | | | 2016 EKITALDIA | | |
|--|-------------------|--------------------|--------------|-------------------|--------------------|--------------|
| | ESKUBIDE ONARTUAK | KOBRANTZA LIKIDOAK | % | ESKUBIDE ONARTUAK | KOBRANTZA LIKIDOAK | % |
| 1 - Zuzeneko zergak | 22.841,21 | 22.641,57 | 99,13 | 22.164,41 | 21.749,32 | 98,13 |
| 2 - Zeharkako zergak | 151,29 | 151,29 | 100,00 | 132,16 | 132,16 | 100,00 |
| 3 - Tasak eta bestelako zergak | 12.127,34 | 10.649,96 | 87,82 | 15.433,55 | 15.433,55 | 100,00 |
| 4 - Transferentzia arruntak | 195.658,89 | 195.658,89 | 100,00 | 182.487,80 | 182.487,80 | 100,00 |
| 5 - Ondare sarrerak | 10.678,05 | 4.678,05 | 43,81 | 14.564,90 | 11.564,90 | 79,40 |
| 6 - Inbertsio errealak besterenganazetik eta hirigintzako jardueretatik ondori | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 7 - Kapital transferentziak | 80.007,51 | 75.399,71 | 94,24 | 65.560,00 | 9.952,22 | 15,18 |
| 8 - Finantza aktiboak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 9 - Finantza pasiboak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| GUZTIRA | 321.464,29 | 309.179,47 | 96,18 | 300.342,82 | 241.319,95 | 80,35 |

Bereziki, beren garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondoko kontzeptuak nabarmentzekoak dira:

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea **HANDIA** izan dela.

5.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN ORDAINDU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko saldoetatik honako hauek ordaindu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

| SORBURU URTEA | HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN | DEUSEZTAPEN BAJAK | ORDAINKETA LIKIDOAK | ORDAINTZEKE BUKAER. SALD. | ORDAINKETA PORTZENTAJE A |
|----------------|----------------------------|-------------------|---------------------|---------------------------|--------------------------|
| 2015 | 1.452,00 | 0,00 | 1.452,00 | 0,00 | 100,00 |
| 2016 | 54.814,63 | 0,00 | 54.814,63 | 0,00 | 100,00 |
| GUZTIRA | 56.266,63 | 0,00 | 56.266,63 | 0,00 | 100,00 |

Abenduaren 31n ordaindu gabe zeuden saldoen artean, garrantzi kuantitatiboa dutenez, ondoko partidak azpimarratu behar dira:

EZER NABARMENTZEKO EZ DAGO

6.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN KOBRATU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko saldoetatik, honakoak kobratu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:



| SORBURU URTEA | HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN | DEUSEZTAPEN BAJAK | KOBRANTZA LIKIDOAK | KOBRATZEKE BUKAER.SALD. | KOBRANTZA-PORTZENTAJE A |
|----------------|----------------------------|-------------------|--------------------|-------------------------|-------------------------|
| 2016 | 59.022,87 | 0,00 | 58.326,25 | 696,62 | 99,00 |
| GUZTIRA | 59.022,87 | 0,00 | 58.326,25 | 696,62 | 98,82 |

Abenduaren 31n kobratu gabe zeuden saldoen artean, garrantzi kuantitatiboa dutenez, ondoko partidak azpimarratu behar dira:

EZ DAGO EZER AZPIMARRATZEKO .

7.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO OBLIGAZIOAK

Aurtengo ekitaldiaren barruan hainbat kreditu aldaketa onartu da, lehen adierazitakoaren arabera. Aldaketa horiek finantzatzeko, besteak beste, iaztik zetorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili da. Beraz, gastuen aurrekontuko kredituak ekitaldi bereko baliabideen bitartez finantzatu dira zati batean, eta aurreko ekitaldietakoek bitartez, beste zati batean. Aurrekontu emaitza zehazterakoan xehetasun hori kontuan hartu beharko da, hala jasotzen baitu 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzkoak, 48.4 artikuluan.

Aurtengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan, ondoko hauek dira gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako kredituak eta abenduaren 31n lortutako gauzatze maila:

| PARTIDA | AZALPENA | B.BET.KRED. DGrekin FINAN | OBL.ONART. DGrekin FINAN. |
|--------------------|--|---------------------------|---------------------------|
| 0000.131.920.00.01 | BEHIN BEH. LANGIL. ORDAINK. ADMIN. OROK. | 7.312,21 | 7.193,93 |
| 0000.210.163.00.01 | AZPIEGIT. ETA ONDAS. GAST. BIDE GARBIAK | 2.652,22 | 2.004,20 |
| 0000.221.333.00.04 | GASA BALIOANITZA | 884,07 | 516,41 |
| 0000.224.333.00.01 | UDAL ERAIKUNTZEN ASEG. POLIZAK. BALIOAN. | 442,00 | 442,00 |
| 0000.227.231.10.99 | BESTE ENPRESEI: E. E. LAGUNTZA ZERBITZUA | 442,04 | 387,96 |
| 0000.421.942.00.01 | MANKOMUNIT. ETA KONTS.: ENIRIO ARALAR | 442,04 | 420,72 |
| 0000.422.920.00.01 | TOLOMENDI. IKT DINAMIZAZIOA | 30,00 | 30,00 |
| 0000.422.942.00.01 | BESTE ENTITATEEI: TOLOSALDEA GARATZEN | 631,00 | 586,51 |
| 0000.480.231.30.01 | FAMILIAK: GIZARTE LARRIALDIA | 323,00 | 323,00 |
| 0000.601.134.00.02 | IGOGAILUA | 320,41 | 320,31 |
| 0000.601.161.00.03 | UR HORNIDURA ETA SANEAMENDUA | 64.376,48 | 544,50 |
| 0000.601.342.00.01 | KIROL GUNE IREKIA | 12.000,00 | 11.942,00 |
| 0000.601.454.00.06 | AZPISALETXEKO BIDEA | 45.006,86 | 45.006,86 |
| 0000.601.933.00.02 | OSTATUKO INBERTSIOA | 262,41 | 229,85 |
| | GUZTIRA | 135.124,74 | 69.948,25 |



8.- DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK, FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETAN

Aurtengo ekitaldi ekonomikoan, apartatu honetan zerrendatzen diren gastu-proiektuak gauzatu dira, ondoko ezaugarriak dituztenak denak ere:

- Berriazko finantzaketa dute gastu horiek, gauzatzeari espresuki lotuta.
- Urte anitzeko eragiketak dira, hau da, obligazio onartuak edota finantzaketari lotutako eskubideak ekitaldi ekonomiko batean baino gehiagotan likidatuko dira, eta ekitaldi horiei egotziko zaizkie.

Gastu mota hori urte anitzetan gauzatu izanak berarekin ekar ditzake desbiderapen finantzarioak, positiboak nahiz negatiboak, ekitaldi bakoitzean, baldin eta obligazio onartuak eta likidatutako eskubideak bat ez badatoz ekitaldien arteko portzentaje banaketan.

Ondorio horietarako, ondokoen arteko diferentzia izango da finantzaketaren desbiderapena:

- ⇒ Gastuaren hasieratik (nahiz ekitaldi honetan hasia izan, naiz aurrekoetan) abenduaren 31ra arte (aurrekontuaren likidazio eguna) onartutako eskubideak, gastu hori gauzatzeari lotuak.
- ⇒ Eta denbora tarte berean gauzatutako gastuaren zatiaren arabera onartu beharko ziren eskubideak, baldin eta sarreraren exekuzioa gastuaren exekuzioarekin batera egin bazen.

Gainera, finantzaketa lotua duen gastuaren exekuzioa aurreko ekitaldi batean has litekeen neurrian, bi hauen artean bereizi beharko da:

- Desbiderapen finantzario metatuak, hau da, lehenago adierazitakoari jarraiki kalkulaturakoak.
- Aurtengo ekitaldiari egotz dakizkiokeen desbiderapen finantzarioak, aurrekoaren antzera kalkulatuak baina aurtengo ekitaldian likidatutako gastu eta sarrerak soilik kontuan hartuta.

Zentzu horretan, aurtengo ekitaldiko aurrekontuan jasotzen diren finantzaketa lotuko gastuak eta, halaber, horren exekuziotik datozen desbiderapen finantzarioak ondoko hauek dira:



10.- AURREKONTU EMAITZA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du aurrekontu emaitza.

Aurrekontu emaitza magnitude ekonomikoa da, eta hauxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak noraino izan diren nahikoak finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko (eta, halakorik balitz, itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko).

| AURREKONTUAREN EMAITZA | | | |
|---|--|---|--|
| KONTZEPTUAK | ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK | ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK | URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA |
| a) Eragiketa korronteak | 241.456,78 | 152.224,44 | 89.232,34 |
| b) Kapital-eragiketak | 80.007,51 | 151.850,96 | -71.843,45 |
| c) Aktibo finantzarioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| d) Pasibo finantzarioak | 0,00 | 4.702,99 | -4.702,99 |
| 1. URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA (1=a+b+c+d) | 321.464,29 | 308.778,39 | 12.685,90 |
| KONTZEPTUAK | AINZATETSITAKO ESKUBIDEAK EZEZTATZEA | AINZATETSITAKO OBLIGAZIOAK EZEZTATZEA | ITXITAKO EKITALDIETAKO ADURREKONTU- EMAITZA |
| a) Eragiketa korronteak | -0,00 | 0,00 | 0,00 |
| b) Kapital-eragiketak | 0,00 | -0,00 | -0,00 |
| c) Aktibo finantzarioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| d) Pasibo finantzarioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 2. ITXITAKO EKITALDIETAKO AURREKONTU-EMAITZA (2=a+b+c+d) | -0,00 | -0,00 | -0,00 |
| 3. DOIKUNTZEN AURREKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2) | | | 12.685,90 |
| <u>DOIKUNTZAK :</u> | | | |
| a) Gastu orokorretarako diruzainzako gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak | | | 69.948,25 |
| b) Ekitaldiko finantziario-desbideratze negatiboak | | | 0,00 |
| c) Ekitaldiko finantziario-desbideratze positiboak | | | 0,00 |
| 4. DOIKUNTZAK GUZTIRA (4=a+b-c) | | | 69.948,25 |
| AURREKONTU- EMAITZA DOITUA (3+4) | | | 82.634,15 |

11.- DIRUZAINZAKO GERAKINA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du diruzaintzako gerakina.



Diruzaintzako gerakina magnitude finantzarioa da, eta entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Bestela esanda: diruzaintzako gerakina ondoko egoera gertatuko balitz entitateak izango lukeen dirutzak osatzen du: epe laburrera kobratu gabeko eskubideen epemuga amaitu eta abenduaren 31n kobratzea, eta bilketa horren emaitzarekin eta data horretako fondo likidoekin epe laburrera ordaindu gabeko obligazioei aurre egitea, horien epemuga ere abenduaren 31n amaituko litzatekeela pentsatuz.

Hiru dira diruzaintzako gerakinaren osagaiak:

- Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura.
- Gehiegizko finantzaketa lotua.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura enteak kobragaitz edo kobraezintzat hartutako eskubide kobratu gabeen estimazioa da. Kobratu gabeko eskubide horiek 9. apartatuan zehazten dira.

Gehiegizko finantzaketa lotuak bi osagai ditu. Alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta desbiderapen horiek ekitaldiaren amaieran kalkulatzen dira erakunde finantzatzaile bakoitzarentzat eta, bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili beharko da, edota halakorik balitza, proiektatu den gastua osorik edo zati batean burutu ezin izanak nahiz burutzeari uko egin izanak sortutako obligazioak estaltzeko. Bestalde, kontuan hartzen ditu baita ere, entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, diruzaintza gerakinari estimatutako kobrantza zalantzarriko saldoak eta gehiegizko finantzaketa lotua kenduko dizkiogu.

| DIRUZAINZAKO GERAKINA | | |
|---|--|-------------------|
| Kontu zbk. | Osagaiak | Ekitaldia |
| 57 | 1. (+) funts likidoak | 375.660,81 |
| | 2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak | 27.461,38 |
| 430,433,437,438 | -(+) urteko aurrekontukoak | 12.284,82 |
| 431,434,439 | -(+) itxitako aurrekontutakoak | 696,62 |
| 440,442,449,456,470, 471,472,548,550 | -(+) aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak | 14.479,94 |
| | 3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak | 22.721,00 |
| 400 | -(+) urteko aurrekontukoak | 18.159,56 |
| 401 | -(+) itxitako aurrekontutakoak | 0,00 |
| 165,166,180,185,410, 414,419,453,475,476, 477,502,515,516,521, 560,561 | -(+) aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak | 4.561,44 |
| | 4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak | 0,00 |
| 554,559 | -(-) behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak | 0,00 |



| | | |
|---------------------|---|-------------------|
| 555, 5581, 5585 | -(+) behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak | 0,00 |
| | I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 – 3 + 4) | 380.401,19 |
| 4900,4901,4902,4903 | II. Kobranta zalantzarriko saldoak | 0,00 |
| | III. Gehiegizko finantzaketa lotua | 0,00 |
| | IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I – II – III) | 380.401,19 |

Beraz, aurtengo ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakina guztira 380.401,19 eurokoa izan da; horietatik:

⇒ 0,00 euro, hau da, kobranta zalantzarriko saldoen hornidura, kredituen zenbatekoen balio-galera zuzkitzera zuzendu da.

⇒ 0,00 euro, hau da, gehiegizko finantzaketa lotua. Atal honek bi osagai ditu; alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili daiteke; eta bestetik, kontuan hartzen ditu entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

⇒ 380.401,19 euro, hau da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, eta berau erabili ahal izango da, kreditu aldaketak finantzatzeko (bai finantzaketa lotua duten gastuetarako eta baita gastu orokorretarako ere).

12.- EMAITZAK EGIAZTATZEA

| KONTZEPTUA | EURO |
|--|------------|
| Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina | 367.715,29 |
| + Aurtengo ekitaldiko aurrekontu-emaiza (doitu aurretik) | 12.685,90 |
| Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira | 380.401,19 |

13.- KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, hain zuzen, behin betiko kredituei horien kargura onartutako obligazioak kenduz kalkulatzen dira.

21/2003 Foru Arauak 44.1 artikuluan agintzen duenez, ekitaldian sortutako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak ez diren aurrekontuko ordainketa-kredituak (hau da, kreditu



gerakinak) zuzenbide osoz baliogabetuko dira abenduaren 31n, ondorengo ekitaldiko aurrekontuari txertatu behar zaizkionean izan ezik.

Goian aipatutako Foru Arauak 32.1 artikuluan jaso du zein kasutan izango dugun kreditu gerakin horiek txertatzeko aukera. Hona hemen zerrenda:

- a) Transferitutako kredituak eta kreditu gehigarriak, baldin eta bi kasuetan ekitaldiko azken hiru hilabetean onartu badira.
- b) Erabilitako gastuetarako kredituak (D fasea), baldin arrazoi justifikatua dela eta obligazioa ezin izan bada onartu.
- c) Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- d) Kapital eragiketarako kredituak.

Ez-erabilgarritzat hartutako kredituak inola ere ezingo dira txertatu. Aurrekontuan txertatutako kredituek finantzatutako obligazioak, onartzekotan, txertaketaren ekitaldi berean onartu beharko dira; kreditu horiek, beraz, ezingo dira hurrengo urteko aurrekontuan berriro txertatu, lotutako sarrerak dituzten kapital eragiketarako kredituak izan ezik.

Horren arabera, ondoko taulan zehaztuta daude aurtengo ekitaldiaren likidazioaren emaitza diren eta txerta daitezkeen kreditu gerakinak. Txertaketa zuzitzeko, aurreko lau kasuetatik zeinetan aurkitzen diren ere zehazten da bertan. Nolanahi ere, kredituak txertatzea aukerakoa da eta, egitekotan, ekainaren 30a baino lehen onartu beharreko kreditu aldaketarako espediente baten (edo batzuen) bitartez egin beharko da.



| PARTIDA | AZALPENA | GERAKINEN ZENBATEKOA | EGOERA | | | | | |
|--|---|-------------------------|--------|---|---|---|---|--|
| | | | a | b | c | d | e | |
| 6 0000.200.333.00.00 2017 | GASTU KORRONTEAKULTURA EKIPAMENDUAK ETA | 0,38 | X | | | | | |
| 6 0000.400.942.00.00 2017 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK: FORU ALDUNDIARI | 0,94 | X | | | | | |
| 6 0000.400.231.00.00 2017 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK: LEHEN MAILAKO G | 0,14 | X | | | | | |
| 1 0000.601.933.00.01 2017 | ABALI GOENENKO ORDAINKETA | 1.311,56 | | | | | X | |
| 1 0000.601.342.00.01 2017 | KIROL GUNE IREKIA | 58,00 | X | | | | X | |
| 1 0000.601.933.00.02 2017 | OSTATUKO INBERTSIOA | 34,00 | X | | | | X | |
| 1 0000.601.134.00.02 2017 | IGOGAILUA | 0,56 | X | | | | X | |
| 1 0000.601.161.00.03 2017 | UR HORNIDURA ETA SANEAMENDUA | 63.831,98 | X | | | | X | |
| 1 0000.601.933.00.03 2017 | BIODIBERTSITATEA, BASOETAKO LANAK | 607,36 | | | | | X | |
| 1 0000.601.454.00.03 2017 | BESTELAKO PROIEKTUAK | 84,76 | | | | | X | |
| 1 0000.642.151.00.01 2017 | UDAL PLANEAMENDUA. PLAN OROKORRA | 5.000,00 | | | | | X | |
| 1 0000.722.943.00.01 2017 | BESTE ENTITATEEI: MENDI NEKAZAR. KUOTA | 676,17 | | | | | X | |
| 1 0000.781.333.00.01 2017 | LANDAREAK | 528,50 | | | | | X | |
| 1 0000.933.011.00.01 2017 | EPE LUZER. MAILEGUEN AMORTIZAZ. | 0,13 | | | | | X | |
| TXERTA DAITEZKEEN KREDITUEN GUZTIZKOA | | 72.134,48 | | | | | | |
| TXERTATU EZIN DIREN KREDITUEN GUZTIZKOA | | 24.387,87 | | | | | | |
| KREDITU GERAKINEN GUZTIZKOA | | 96.522,35 | | | | | | |

14.- ONDORIOAK

Idazkariak dagokion komunikazioa egin behar du 2017likidazioari dagokionez , gerakinak erabili direlako , eta gastu araua bete ez delako .

Baliarrainen , 2018(e)ko martxoaren 22ean
Kontuhartzailea



2017KO ALTXORTEGI GERAKINEKO LABURPENA

| | | |
|---|--|--------------|
| 1- Altxortegiko izakin likidoak: 2017/12/31an Kaxan eta Kutxan dagoena | | 375.660,81 € |
| 2- Sarrera-Aurrekont. Zordunak: Urteko ekitaldia: 2017/12/31 kobratu gabe geratu direnak: | | 12.284,82 € |
| | 2017-04 zaborra | 1.390,01 € |
| | 2017ko ostatuko kanonak | 6.000,00 € |
| | Kirolako laguntza | 4.607,80 € |
| | 2016- zaborra | 87,37 € |
| | Ibilgailua 2017 | 199,64 € |
| 3- Sarrera-Aurrekont.Zordunak: Itxitako ekitaldiak: 2017/12/31an kobratu gabe geratu direnak: | | 696,62 € |
| | ibilgailuak | 46,06 € |
| | Ostatuko kanona | 650,56 € |
| 4- Aurrekontuz kanpoko zordunak: 2017/12/31an Patrimonialean kobratzeko dagoena | | 14.479,94 € |
| | Alokairuen BEZkobratzeko gehi inbertsioena | 14.479,94 € |
| 5- Gastu-Aurrekont.Hartzek.: Urteko Ekitaldia: 2017/12/31an ordaindu gabe geratu direnak | | 18.159,56 € |
| | Elektrizitatea Pilotalekua | 180,42 € |
| | Arkitektoa. Saneamendua | 544,50 € |
| | Kirola | 11.942,00 € |
| | Oihan zerbitzuak | 5.492,64 € |



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

| | | | |
|---|--|------------|------------|
| 6- Gastu-Aurrekont.Hartzek.: Itxikitako ekitaldia: 2017/12/31an ordaindu gabe geratu direnak | | | 0,00 € |
| 6- Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: 2017/12/31an patrimonialean ordaintzeko dagoena | | | |
| Itzuli beharreko fidantzak: | | | 4.561,44 € |
| 1-Ileapaindegia | | 564,00 € | |
| Haziendari. Euskalteleko itzulera | | 13,31 € | |
| P.F.E.Z. 2016ko 4. hiruhilabetea | | 1.772,71 € | |
| Gizarte Seg. Eta Elk. Ordaindu beharrekoa | | 2.211,42 € | |
| 7- Altxortegi-gerakin gordina: 2017/12/31an geratzen den gerakina eta 2018an erabili daitekeena | | | 380.401,19 |
| GERAKIN GARBIA | | | 380.401,19 |



TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2017. URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

ARAUDI APLIKAGARRIA

- * 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- * 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- * Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2016(e)ko azaroaren 8(e)an, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.
- * Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017ko martxoaren 7koa, Gipuzkoako toki entitateek 2017ko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko aplikatu beharreko jarraibidea aldatzen duena.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

ENTITATE

1. ZERRENDA:

1. BALIARRAIN

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izan da 2017. urtean:

Superabita:

17.388,89

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetako sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetako gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2017. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.



Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du aurrekontu egonkortasunaren 2017. urterako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2017-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izan da, 2017. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %0,00

Kalkulua egiteko, 2017-12-31ko zor bizia erabili da, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2017. urterako ezarritako helburua zor bizia %77 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2017. urterako helburua.

Gastuaren araua

2017. urtean gastu konputagarria eta gastuaren muga honako hauek izan dira:

| | |
|-----------------------------|-------------------|
| Gastu konputagarria: | 205.326,84 |
| Gastuaren muga: | 154.493,76 |

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

| | 2017 | 2016 |
|---|-------------|-------------|
| Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak) | 304.075,40 | 237.872,31 |
| Zorraren interesak | 0,13 | 4,87 |
| SEC doikuntzak | 0,00 | 0,00 |
| Admin. publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua | 98.748,43 | 86.551,32 |
| Gastu konputagarria | 205.326,84 | 151.316,12 |
| Gastuaren hazkundearen muga: | %2,10 | |



Araudiaren aldaketen eragina: 0,00
Gastuaren muga 154.493,76

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen 2017. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2017. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta dago, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, Beraz1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontu-hartzaile honek berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Baliarrainen , 2018eko martxoaren 22ean

TXOSTENA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN AZTERKETA ETA EBALUAKETA

AURREKARIAK

2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5. artikuluan xedatzen du, aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari, entitateko udalbatzarrari komunikazioa helaraziko zaiola, Kontu-hartzaileak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Gipuzkoako toki entitateek 2017 ekitaldirako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko jarraitu beharreko erregelak onartzen dituen Jarraibidearen 3. erregelak ezartzen du gastuaren araua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordezkari, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru garren apartatua aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaiola Udalbatzarrari.

Aipatutako xedapenak aurreikusitakoari erantzuteko egin da honako txosten hau.

ARAUDI APLIKAGARRIA

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.



- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko otsailaren 8koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN AZTERKETA ETA EBALUAKETA

2017 ekitaldiko aurrekontuan kreditu aldaketak egin ziren diruzaintzako gerakinarekin finantzatu zirenak. Likidazio espedientearen arabera, obligazio hauek finantzatu ziren diruzaintzako gerakinarekin:

Diruzaintza gerakinarekin finantzatutako obligazioak

| PARTIDA | AZALPENA | B.BET.KRED. DGrekin FINAN | OBL.ONART. DGrekin FINAN. |
|--------------------|---|------------------------------|------------------------------|
| 0000.131.920.00.01 | BEHIN BEH. LANGIL. ORDAINK. ADMIN. OROK. | 7.312,21 | 7.193,93 |
| 0000.210.163.00.01 | AZPIEGIT. ETA ONDAS. GAST. BIDE GARBIK | 2.652,22 | 2.004,20 |
| 0000.221.333.00.04 | GASA BALIOANITZA | 884,07 | 516,41 |
| 0000.224.333.00.01 | UDAL ERAIKUNTZEN ASEG. POLIZAK. BALIOAN. | 442,00 | 442,00 |
| 0000.227.231.10.99 | BESTE ENPRESEI: E. E. LAGUNTZA ZERBITZUA | 442,04 | 387,96 |
| 0000.421.942.00.01 | MANKOMUNIT. ETA KONTS.: ENIRIO ARALAR | 442,04 | 420,72 |
| 0000.422.920.00.01 | TOLOMENDI. IKT DINAMIZAZIOA | 30,00 | 30,00 |
| 0000.422.942.00.01 | BESTE ENTITATEEI: TOLOSALDEA GARATZEN | 631,00 | 586,51 |
| 0000.480.231.30.01 | FAMILIAK: GIZARTE LARRIALDIA | 323,00 | 323,00 |
| 0000.601.134.00.02 | IGOGAILUA | 320,41 | 320,31 |
| 0000.601.161.00.03 | UR HORNIDURA ETA SANEAMENDUA | 64.376,48 | 544,50 |
| 0000.601.342.00.01 | KIROL GUNE IREKIA | 12.000,00 | 11.942,00 |
| 0000.601.454.00.06 | AZPISALETXEKO BIDEA | 45.006,86 | 45.006,86 |
| 0000.601.933.00.02 | OSTATUKO INBERTSIOA | 262,41 | 229,85 |
| | GUZTIRA | 135.124,74 | 69.948,25 |

Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazio horiek eragin zuten aurrekontuaren likidazioan ez betetzea aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua.

Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazio horiek etorkizunean gastu finkoa handitzea ekarriko dute. Hala, hurrengo ekitaldietan eragingo duten gastu handiagoa 1.500 eurotako batz beste eurokoa izango dela aurreikusten da.

Bestalde, entitatearen aurrezki garbia honakoa izan da, aurreko urteko likidazioan eta aurtengo aurrekontuan:

Aurrezki garbia



| | Aurreko urteko likidazioan | Uneko aurrekontuan |
|------------------|-------------------------------|--------------------|
| Sarrera arruntak | 234.782,82 | 241.456,78 |
| Gastu arruntak | 147124,04 | 152.224,44 |
| Aurrezki garbia | 87.658,78 | 89.232,34 |

Gainera, ezusteko eragiketarik izan ezean, goian aipatutako gastu finko berri horretaz gain, sarrera arruntak eta gainerako gastu arruntak iraunkorrak izango dira, ez baita espero hurrengo ekitaldietan gorabehera handirik gertatzerik horietan.

Ondorioz, entitatearen aurrezki garbia nahikoa da aurreko urtean diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioek eragindako gastu finko handiagoari aurre egin ahal izateko hurrengo ekitaldietan.

ONDORIOAK

Aurreko urteko exekuzioa, uneko aurrekontua eta hurrengo urteetarako aurreikuspenak ikusirik, ezusteko eragiketarik gertatu ezean, bermatuta dago entitatearen finantza iraunkortasuna datozen ekitaldietarako.

Baliarrainen , 2018eko martxoaren 27ean .
Kontu-hartzailea:

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-2017ko aurrekontuaren likidazioari onarpena ematea osotasunean .
- 2.- 2017 ekitaldiko Kontu Orokorrari haserako onarpena ematea , Udal Entitateen Aurrekontuen, 2003ko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren, 63. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aipatu Kontu Orokorra, hamabost lan-egunez jendaurrean jarriko da. Epe horretan interesdunek erreklamazioak, zalantzak eta oharrak egin ahal izango dituzte Udaletxeko Erregistro Orokorrean, bulego ordutegian.

Jasotako erreklamazio eta zalantzekin batera, Kontu Orokorra Udalbatzarraren Osoko Bilkuran aztertuko da, egoki baderitzo, eta alegaziorik tarteratu ezean behin betikotzat onartuta emango da , erabaki berririk hartu beharrik gabe .

4.-ASUNCION KLINIKAKO (INVIZA) LANGILE BATZORDEAK AURKEZTUTAKO MOZIO PROPOSAMENA ONARTZEA.

Alkateak jakinarazten du , Invizako langile batzordearen ELA ETA LAB sindikatuetako hautetsiek udal batzari mozioa onartzea proposatu diela.



Aurkeztu duten mozioan , ondorengo puntuak onartzea proposatzen da :

- 1.-Hitzarmen duin bat sina dezatela eskatzea
- 2.-Herritarron diruaren jarraipen zehatza egitea , kalitatezko osasun zerbitzu bat eta lan baldintza egokiak berretsiko dituen .
- 3.-Berretsi dadila Tolosaldean kalitatezko osasun publikoa , doakoa, unibertsala eta gainontzeko eskualdeetako berdina izatea .
- 4.-Udalak eska dezala osasun sailarekin dagoen hitzarmena bete dadila ; bereziki azpiegitura , langileria eta 3.21.-3.2.2-3.2.4-3.2.5-3.3.2-3.3.4 puntuetan .
- 5.-Eta erabaki hauek Gazteizko gobernuari bidaltzea.

Mahaikideek , alkateak jakinarazi duenarekin , aztertu ondoren , bozketa egin da eta ERABAKI DA :

- 1.-Bertan bildu diren kide guztiek mozioan eskatzen denarekin ados agertzea .

5.-GALDERAK ETA ESKAERAK

BAT.-Juanjo Nazabalen eskaera

Juanjo Nazabal jaunak , udalaren jabetzako partzela den herri mendia deritzanean , zatitxo batean , zuhaitz batzuek bota eta bide bat egin nahi , Dorregi partzelara iristeko.Gaur egun , Dorregiko partzela berak erabiltzen duela eta belar bolak egin eta bere jabetza partzelara eramateko paso hori egokiagoa geratzen zaiola .
Udalak , eskabidea aztertu du , eta azkenik erabaki da :

- 1.-Bertara joan eta ikustea komeni dela .
- 2.-Eta ondoren , Juanjo Nazabalekin bertan geratzea .

BI.-Irisgarritasuna.

Baliaraingo udalak herriko irisgarritasun plana egiteko diru laguntza eskaera luzatu zuen Jaurlaritzara .

Udala luzatu duen diru laguntza eskaeraren aurrekontua 13.310 eurotako da beza barne , eta onartu duten laguntza 8250 euro , hauetatik 750 euro 2017ko aurrekontuaren gain eta 7500 euro , 2018ko aurrekontuaren gain .

Mahaikideei erabakiaren berri jakinarazi zaie eta 2018ko ekitaldian lan hau burutzea pentsatu da , udaleko arkitektoarekin .

HIRU.-Azpisaletzeko bidearen hasera

Azpisaletzeko bidearen hasieratik 200 metro luzeran , lehen zegoen baino hestuago geratzen dela aditzera eman da .

Horretarako , ohikoa moduan etortzen den bezala , purina banatzeko traktorea etortzen denean froga egiteko geratzen da . Eta ondoren , Aldundiari jakinarazi bidearen egoera lehengoa baino txarragoa dela , hestuagoa geratu delako .



LAU. Ostatua .Gasa

Gai hau ez da tratatu.

BOST .-Pagoa Mirenei esleitzea , eroritako adarrak kendu eta txukuntzearen ordainetan .

Alkateak jakitera eman du , herrian dei bat banatu zela 2018eko otsailaren 26ean .dei horretan , herriko sagastiaren ondoan pago bat bota zela , egoera txarrean zegoelako , eta su egurretarako norbaitek interesa izango balu izena eman dezala udalean . Pagoa jasotzearen ordainetan, sagastia txukundu beharko litzake. Eroritako zuhaitz eta adarrak kendu e.a.

Jendaurrean jarri eta izena eman dutenek hiru izan dira , baina hauetatik izena eman duten bi lagun atzera bota dira eta interesik ez dute agertu .

Alkateak dio beraiekin pertsonalki hitz egin ere egin duela eta uztearen arrazoiak agertu dizkiotela .

Beraz , azkenik , Miren Etxeberria bakarrik agertu da interesarekin eta , pagoa bereari esleitzen zaio , eta ordainetan esandako lanak burutu beharko ditu .

Eta besterik ezean , bilera amaitutzat eman zuek alkateak , 20,45 etan .

Alkateak

Idazkariak